

DSS2016 lab


Irakurtzeko denbora, gutxi gorabehera: 30'

**EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA 2016an
DONOSTIAKO HAUTAGAITZA
2009ko abendua**



HERRITARREN ENERGIA OLATUAK

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA 2016an
DONOSTIAKO HAUTAGAITZA
2009ko abendua





HERRITARREN ENERGIA OLATUAK

Elkar=bizitzen

*Bake-kultura eta balioetan
oinarritutako hezkuntza*

Elkar>hizketan

Hitzen hiria

Elkar*eragiten

Eurohiri atlantikoa

HERRITARREN ENERGIA OLATUAK

**Hezkuntza hedatua
Sormen eraldatzailea
Feminista-etika
Prozesua da helburua
Partekatu VS Lehiatu
Soiltasun arduratsua**

Elkar=bizitzen

*Bake-kultura eta balioetan
oinarritutako hezkuntza*

Elkar>hizketan

Hitzen hiria

Elkar*eragiten

Eurohiri atlantikoa

HERRITARREN ENERGIA OLATUAK

**Hezkuntza hedatua
Sormen eraldatzailea
Feminista-etika
Prozesua da helburua
Partekatu VS Lehiatu
Soiltasun arduratsua**

Elkar=bizitzen

*Bake-kultura eta balioetan
oinarritutako hezkuntza*

Elkar>hizketan

Hitzen hiria

Elkar*eragiten

Eurohiri atlantikoa

Teorikoa

Sinbolikoa

Enpiriko-praktikoa

Parte-hartzea

Komunikazioa

PARTAIDETZA

Lankidetzza

**GIZARTE
CAPITALA**

Hiritarren
ahalduntzea

Soiltasuna

NAHIA(K)

EKIMENA

Eko-politika

Begirunea

PERTSONA(K)

Poli-etika

Jakin-mina

Oroimena

Gizarte

zuzentasuna

IRUDIMENA

ANIZTASUNA

REMIX

Sorkuntza

Norbanakoaren
subjektibotasuna

Gozatu

JAI GIROA

Talde adimena

Aurreiritzirik

Kulturen zehar-artekotasuna

gabe

Belaunaldien zehar-artekotasuna

(auto)Kritikoa

Bat(ez)etortzea

BAKEA

Mugarik

gabe

Errezetarik

(des)Ontolaketa

gabe

Jakintza gaien zehar-

artekotasuna

Iraun(ezina)

Naturaltasuna

Aparretan Gora

D.I.Y. Do It Yourself

Gogoeta **D.I.T.** Do It Together

EKINEAN!! Errealitatea astindu

DENONTASUNA

Emikome

Jarioak eragitea


Gazunezko

Luzerako begirada
etengabeko jardunean


Co-responsabilidad

A network of colorful fiber optic cables (red, green, blue, yellow) is shown against a light blue background. The cables are bundled together and run across the frame. The text "Zer da DSS2016lab?" is overlaid on the right side of the image.

**Zer da
DSS2016lab?**



Lanerako laborategia da, bereziki proposamenak egiteko sortua. Hartan, abenduan zehar, Donostia 2016an Europako Kultur Hiriburua izateko hautagaitzarako programazio-eskema artikulatzen ahaleginduko gara (faro-proiektuak/programak/jarduerak), hainbat eremutako hainbat pertsonarekin elkarlanean.




Laborategi horren lan-prozesuaren emaitzekin proposamen-dokumentu ez-lotesle bat egingo dugu, eta Donostia 2016 hautagaitzaren Erakunde arteko Batzordeari (Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru aldundia eta Eusko Jaurlaritzak) aurkeztuko diogu, onar dezan.

Dokumentu hori oinarritzat hartuko da dossier bat egiteko, eta dossier hori eskuan, lehen hautaketa-prozesua gainditzen ahaleginduko gara, 2010aren bigarren sei hilabetekoan.



**Zer nahi dugu
Zugandik?**



Zure laguntza behar dugu, Europako Kultur Hiriburua izateko Donostia 2016 hautagaitzarako **KULTUR programazioko proposamen zehatz bat artikulatzeko.**

Txosten honetan bildutako materiala oinarritzat hartuta egin dezazula nahi dugu, zure esperientzia-jakintza pertsonal-profesionaletik eta laborategian truka daitezkeen iritziak kontuan hartuz.

Kontua ez da kontzeptuzko eztabaida filosofiko batean sartzea, baizik eta, gehienez ere, eztabaida hori **PROPOSAMEN PROGRAMATIKO ZEHATZEN** bitartez egitea, ikuspegi panoramiko (hautagaitza-proiektua bere osotasunean hartuta), zeharkako (ardatz, maila, gai eta abarren artean egon daitezkeen loturak bilatuz) eta ireki (proposamenak sistema itxiak eta erabatekoak ez direla aintzat hartuta) batetik abiatuta.

Garrantzizkoa da, halaber, ideia, hitz eta irudi sinboliko iradokitzaileak sortzea, Donostia 2016 hautagaitzari laguntza eta koherentzia emateko baliagarri izan daitezkeenak.

Europako Kultur Hiriburua izateko gure proiektua garatzeko kontzeptuzko ereduak

- Arazoak-erronkak zehaztea (lan-ardatzen arabera) / Galderak egitea / HELBURUAK zehaztea / Adierazleak ezartzea (kualitatiboak, kuantitatiboak eta adierazle berriak).
- Soluzio sortzaileak bilatzea eta galdera berriak egitea / proiektuak eginez (garatu beharreko mailen arabera).
- Ardatzak eta mailak zeharkakoak dira, eta elkarri lotuta daude.
- Tokian pentsatua eta tokian aplikatua/ Globalean, European bereziki, egokitzeko moduko eredu gisa transferitua.

Zein da programazioa antolatzeko eskema?

Hainbat lan-ardatz, jardun-maila eta zeharkako alderdiren bitartez artikulatu da programa (guztiak ere txosten honetan aurkeztu dira).

Eskema horretatik abiatuta, zenbait **faro-proiektu** (gutxienez sei eta gehienez hamabi) sortu behar dira; faro-proiektu bakoitzak zenbait **programa** bilduko ditu, eta programa bakoitzak, halaber, zenbait **jarduera**. Ez ditugu jarduerak sakonetik garatu behar, baina “irudi” moduko bat sortu behar dugu, zertaz ari garen imajinatzeko lagungarri.



Faro-proiektuak

— — —

Programak

— — —

Jarduerak

Aparretan Gora

Horixe izan daiteke bila gabiltzan programazio mota definitzeko esamolde egokia. Ingurunean sartu ondoren, goraka egin behar du programazio horrek (gaurko egunetik 2015era bitarte), 2016an goreneko eferbeszentzia lortzeraino, nabarmenago eta ikusgarriago. Ondoren, 2016tik aurrera, disolbatu egingo da ingurunean, efektu sendagarri eta ERALDATZAILEA eraginez.

Gainera, honako hauek eskatu nahi dizkizugu...

Kritika konstruktibotik eta proposamenei buruzko baloraziotik abiatuta:

1. Eman zure iritzia Europako Kultur Hiriburua izateko Donostia 2016 hautagaitza-proposamenaren kontzeptu orokorraren edo alderdi partikularren inguruan.
2. Nola ikusten duzu Donostia? Zure ustez, nola bilakatu behar du hiriak etorkizunari begira?

Fase metodologikoak

Laborategiko lan-prozesua hiru fasetan banatzen da:


1. **FASEA:** Lan-materiala (txosten hau erantsia) jaso eta aztertzen da.
2. **FASEA:** Lan-bilerak, taldeka edo banaka (antolatzaileek erabakiko dute parte-hartzaile bakoitzarekin egin beharreko bilera mota eta saio kopurua).
3. **FASEA:** feed-backa itzultzen da, proposamena laburbiltzen duen idazki baten bitartez (2-4 orri)



**Lanean hasi
aurretik kontuan
hartu beharreko
gauza batzuk**

Europako Kultur Hiriburuko proiektua egitean kontuan hartu beharreko oinarrizko irizpideak

- Izendapenerako “premia” zehaztea.
- Proiektuaren europar dimentsioa erakustea (europar dibertsio*tatea eta antzerakotasunak).
- Lurralde-dimentsioa artikulatzea: proiektuaren diseinuan, inbertsioan, kudeaketan eta berraztertzean.
- Mundu ekonomikoaren inplikazioa (Merkataritza Ganbera, enpresak eta abar).

- 
- Proiektu bakoitza “egituratutako herritarren” gainean eraikitzea, hau da, elkarte, enpresa, zentro teknologiko, ikastetxe eta erakundeen gainean.
 - Formatu berritzaileak dituzten programa eta jarduerak sortzea (erakusketez gain, mahai-inguruak, hitzaldiak, topaketak, tailerrak, mintegiak, happeningak aire zabalean eta abar).
 - Prozesuaren kultur programazioa (2009 > 2015), hiriburutzaren urtea (2016) eta hiriburutzaren ondokoa (2017 > ...) kontuan hartzea, bereizita eta koherentziari jarraiki. 2013. urtea erreferentzia- eta inflexio-puntua izango da prozesu horretan, urte horrek hiriarentzat duen balio sinbolikoa baliatuz.

Honelako proiekturik **EZ** dugu nahi:

Itxura ona bai baina mamirik ez duena

Kulturaren ikuspegi instituzionalizatu edo
“autoritarioak” dituena

Hiria berritzeko handinahi neurrigabeek
bultzatutakoa

Estatistika-xedeetarako soilik, ikuskizunen
gizartera eta kultur kontsumora bildutakoa

Proposamen artifizialak eta kultur
burbuilak biltzen dituena, muntaketa eta
erakustaldi handinahi, erretoriko eta
hutsak eginez

Ikuskizun eta ekitaldi ludiko ugari,
neurrigabe, eskaintzen dituena

HONAKO PROIEKTU HAU sustatu nahi dugu:

Ereduzkoa, erreferente bihurtuko dena

Munduari gure lurraldearen berariazko
esperientziatik hitz egingo diona

Kultur jardueraren GIZARTE ERAGINA
berreskuratuko duena (SUBJEKTUAK dira
garrantzitsuenak, ez OBJEKTUAK)

GIZARTE HOBEKUNTZARAKO eta GIZA
GARAPENERAKO lagungarri izango dena

Kultura JAKINTZA eta TRUKERAKO
iturri gisa berreskuratuko duena

EREDU IZATEKO gai izango dena, gaur
egun eskatu beharrekoa den erantzukizun
moralarekin bat etorritik

Gure proiektuak honako helburu hauek ditu:

- > ERREALITATEA ISLATZEA, errealitatea erakutsi beharrean errealitatearen BERRI EMANEZ, errealitatea kontatuz eta komunikatuz = azken batean, errealitatea partekatuz
- > Kontraesanak, antagonismoak, mendeko kontakizunak aurkeztea
- > Kritika egiteko eta erantzuna emateko guneak ahalbidetzea (eztabaida edo elkarrizketa, politika eta poetika eraikitzeke bitarteko gisa)
- > ASKOTARIKO IKUSPEGI UGARIAK eskaintzea, azterketarako beste aukera batzuk ahalbidetzeko. Eta, hortaz, AHALMEN SORTZAILEA erraztea, ahalmen sortzaile artistikoa eta ahalmen sortzaile soziala alegia, gaur egungo erronkei erantzun berriak emateko
- > ETORKIZUNeko galderak sakonetik aztertzea eta etorkizuneko belaunaldiekiko elkarrizketa irekia planteatzea

Gure proiektuak guneak sortu behar ditu...

...harremanetarako guneak, harreman iraunkorrek ezartzea ahalbidetuko dutenak, harremanak hausnarketa sustatzen duela aintzat hartuta

...bitartekotzarako guneak, agente totalizatzaile gisa jardun beharrean bitarteko gisa jardungo dutenak

...sormen-lanen banaketari eta trukeari dagokienez gaur egungo arintasuna bermatuko duten guneak

...sormen-lana ahalbidetzeko, afektu, ideia, iritzi, emozio eta ekarpenak askatasunez mugitzea ahalbidetuko duten guneak

...testuinguru sortzaileak sorraraziko dituzten guneak, talde-lana eta beste eremu batzuekiko (ekonomikoak, hezkuntzakoak, sozialak, diziplina anitzekoak) harremanak ahalbidetuko dituztenak

Hainbat aukera aintzat hartu/konbinatu behar dira:

- > Tokiko eta/edo nazioarteko publikoa
- > Orotariko publikoa eta/edo publiko espezializatua
- > Produzitutako, batera produzitutako, sarean produzitutako programak eta abar
- > Ekitaldi handiak eta/edo ekintza txikiak
- > Zeharkako edo oso berriazko proiektuak
- > Donostiako auzoetan zentralizatutako edo lurraldean hedatutako proposamenak
- > Hezkuntzarekin, ludikoarekin, diskurtsiboarekin, parte-hartzearekin zerikusirik handiagoa duten jarduerak
- > Berriazko azpiegituren barnean eta/edo espazio publikoan
- > ...


A green coiled telephone cord is shown against a light blue background. The cord is coiled in a large loop on the left side of the image. In the upper right, a purple telephone handset is visible, connected to the end of the cord. Several thin, light-colored lines, possibly power or data cables, run horizontally across the top of the image.

Gure kontakizuna


A green coiled telephone cord is shown against a light blue background. The cord is coiled in a large loop on the left side of the frame and extends towards the top right. In the background, there are several thin, horizontal lines, possibly power lines or other cables, and a small blue object, possibly a pen or a small tool, is visible near the top center.

Zer?


HERRITARREN ENERGIA OLATUAK
ELKARBIZITZAREN OLATUA HARRAPATU BEHARRA




Gaur egun hainbat dira mundu osoan nonahi nabari diren kinka larriak, eta, horien guztien artean, Donostian eta Euskadin askatasunez bizitzeko ezintasuna izan daiteke arazo nagusia, hain zuzen ere ideologia, nortasun, hizkuntza edo kidego-sentimendu desberdinak dituzten **PERTSONAK** elkarbizitzeko ezintasuna. Antza denez, elkarbizitza-arazo horrek ez du konponbiderik gurean, eta terrorismoa dugu horren adierazgarri ankerrena. Arazo horren azpian, ordea, beste hainbat arazo ezkututzen dira, horietako asko desberdinen arteko elkarbizitzarekin eta askatasunen eta Giza Eskubideen errespetuarekin ere zerikusia dutenak.



Hala, Europako Kultur Hiriburua izateko Donostiako hautagaitzak, lehenik eta behin, lagungarri izan nahi du elkarbizitza baketsua irmotasunez bilatzeko, birfundazio demokratiko berri bat proposatuz horretarako, Donostiak 1813. urtean, gerra mugakideek hiria erabat eraitsi ondoren, egin zuenaren antzera. Hiriaren berreraikuntza zibiko horrek berrehun urte beteko ditu laster, eta bigarren mendeurren hori ospatzeko ekitaldiek HERRITARREN ENERGIAREN funtsezko zeregina ekarriko dute gogora, baita herritarrek, batera eta ausart jokatzuz, arazoei aurre egiteko duten ahalmena gogora ekarri ere.




Nolanahi ere, tokiko bakearen eta Giza Eskubideak hedatzearen alde borrokatzeaz gain, gure kultur hiriburutzak ardatza ere izan behar du, hain zuzen ere Europak eta demokraziak munduan bete beharreko zereginaren inguruan hausnarketa egiteko ardatza. Horrek ekimen ugari garatzeko aukera emango du, nazioartean bakearen kultura sustatzeko, munduan emakumeen eta haurrenganako indarkeriaren aurka borrokatzeko, justizia unibertsala eta balioetan oinarritutako hezkuntza garatzeko, eta adiskidetzarako eta desberdinen arteko elkarbizitzarako gizarte-kode berriak bultzatzeko.



Horretarako, kultura demokrazia ulertzeko modu integraltzat hartuko duen Hiriburutza proposatu nahi dugu. Kulturala, ekonomikoa, soziala eta politikoa elkarri lotuta egonik, dinamika konplexuak sorraraziko dituen ekosistema jakin bat sortzen edo indartzen ahaleginduko den hiriburutza. **PERTSONAK** erdigunean jarriko dituen.

Sareko proiektu parte-hartzailea; hezitzaile eta ekologikoa; berrikuntza, sormena eta irudimena trakzio-elementutzat dituen; garapen orekatu eta arduratsutik abiatuta; eta balio etiko eta sozialetan oinarritua.



Hortaz, proiektu jakin batzuen bitartez erantzuna(k) aurkitzen lagundu behar digu gure Hiriburutzak, gaur egun unibertsalismo emanzipatzaile berri bat nola sor daitekeen asmatzeko, “haien” aurkakotzat hartuko ez den ”**GU**” bat nola izenda dezakegun asmatzeko alegia, eskubide abstraktoen aipamen erretoriko soila gaindituz.



Non?

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN / GIPUZKOA / EUSKADI

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN (DSS)

Donostia - San Sebastián (DSS) 200.000 biztanle inguru dituen hiria da, mendi txikien eta eraikin dotoreen arteko konbinazio orekatuaren emaitza, Ozeano Atlantikoan dagoen Bizkaiko Golkoan kokatutako Kantauri Itsasoaren ertzean. Hiria Europako aristokraziaren udaleku izan zen 'Belle Epoque' izeneko garaian, eta oso erakargarria da oraindik ere. Gainera, hiriko kultura bizi-biziak areagotu egiten du erakargarritasun hori: ekitaldi handiak (hala nola Zinemaldia), gutxiengoarentzako proposamen esperimentalak (hala nola Artelekun garatutakoak), nazioarteko ospea duen gastronomia eta abar. Eta bere burua atsegin duen hiriaren itxura ematen badu ere, Donostia ez dago lo. Aitzitik, gogotik saiatzen da sorkuntzaren bidean, eta, horretarako, herritarren energia sustatzen du. Eta, hori guztia, erronkarik handienetako bat aurrean duela: elkarbizitza baketsua eta indarkeriaren amaiera.

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN / GIPUZKOA

Donostia - San Sebastián (DSS) Gipuzkoa izeneko foru-lurralde baten hiriburua da. Gipuzkoak entitate politiko propioa du, eta, bertako hiri-lurraldean, natura eta hainbat formatutako hiri eta herriak uztartzen dira, baina guztiek ere ondo konektatutako konurbazioa osatuz, itsasoaren eta mendiaren arteko oreka ederrean. 600.000 biztanlek baino gehiagok osatzen dute hiri-egitura sendo hori, herri txikiak eta bitartekoak erantsita, eta elkarbizitza ekonomiko, sozial eta kulturalerako neurrizko gunea da, gero eta gehiago Donostiaren inguruan, Donostia ardatz hartuta, antolatua.

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN / EUSKADI

Donostia - San Sebastián / Gipuzkoa lurralde-hiria da, eta Euskadiren (Estatu Espainoleko Autonomia Erkidego bat) parte da. Bizkaiko eta Arabako foru-lurraldeekin partekatzen du Euskadiren mapa politikoa (Bilbo eta Vitoria-Gasteiz dira foru-lurralde horietako hiriburuak, hurrenez hurren). Geografia -100 km baino pixka bat gehiagoko tartea elkarren artean-, historia, kultura eta hizkuntzak partekatzen dituzte foru-lurralde horiek. Bi hizkuntza ofizial daude, gaztelania edo espainola eta euskara, eta azken hori da herriko hizkuntza, Nafarroan eta Iparraldeko Lapurdiko eta Zuberoako probintzietan ere hitz egiten dena. Guztien artean Euskal Herria (euskaraz hitz egiten duen herria) osatzen dute, ikuspegi antropologiko eta kultural batetik begiratuta.

MUGAZ HARAINDIKO EUROESKUALDEA

Europar Batasunak mugaz haraindiko eskualdeak batzeko garatu duen integrazio-politikari jarraiki, hiri-korridore bat sortu da Frantziako eta Espainiako muga nazional zaharren bi aldeetara, Bilbotik, itsasbazter atlantikoan barrena eta Donostia erdigunetzat hartuta, Baionaraino, Frantziako Akitaniako eskualdean, luzatzen dena. Nukleo anitzeko eremu metropolitanoa da, eta bertan mugaz haraindiko lankidetzarako hainbat proiektu biltzen dira, euroeskualde horren bihotz sinbolikoan hiri-segida hori antolatzeko eta hiri “berri” bat sortzeko helburuarekin.

EUSKAL HIRIA


Bernardo Atxaga idazleak behin eta berriz aipatu du Euskal Hiriaren kontzeptua, datorren Europaren giza mapa eta gizarte-mapa berria sortzen ari den hiri-ikusmolde eta kultura-ikusmolde berri hori definitzeko.

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN / GIPUZKOA / EUSKADI



Horretaz gain...

- > Zer da Donostia?**
- > Nolako Donostia nahi genuke?**
- > Zer utziko genuke? Zer kenduko genuke?**
- > Donostiari buruz pentsatzean burura datozkigun ideiak**
- > Pertsonak/Taldeak**
- > Lekuak**
- > ...**




**Lan-ardatzak
eta
jardun-mailak**

Lan-ardatzak Jardun-mailak

Elkar=bizitzen
Elkar>hizketan
Elkar*eragiten


Teorikoa
Sinbolikoa
Enpiriko-praktikoa
Parte-hartzea
Komunikazioa

Ardatz eta maila guztiak zeharkakoak dira eta elkarri lotuta daude. Zenbait proiektuk zenbait ardatz lotuko dituzte eta zenbait mailatan zabalduko dira; beste proiektu batzuk, aldiz, askoz ere espezifikoagoak izango dira.



Lan-ardatzak





Elkar=bizitzen
Elkar>hizketan
Elkar*eragiten



Elkar=bizitzen

*Bake-kultura eta balioetan
oinarritutako hezkuntza*

Elkar>hizegin

Hitzen hiria

Elkar*eragiten

Eurohiri atlantikoa




Elkar=bizitzen


***Bake-kultura eta balioetan
oinarritutako hezkuntza***

Ankerkeriari eta etsipenari aurre egiteko herritarrek eskura dugun adierazpiderik onena kultura delako uste osoa dugunez, Donostia 2016 erronkari heltzeko erabakia hartu dugu, ELKARBIZITZAREN, BAKE KULTURAREN ETA BALIOETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZAREN aldeko apustu irmoa eginez.

GUZTIOK abiatutako apustu eraldatzailea izan nahi du gureak, bizi garen lurraldean indarkeriak herritar askoren askatasuna galarazten duelako, eta herritar horien adorea eta energia, tokian tokikotik abiatuta, munduan demokraziak aurrera egin dezan lagungarri izan daitezkeelako.



Hala, gure esperientziatik abiatuta, hots, indarkeriarik ezak eta berreskuratutako memoriak ematen diguten nagusitasun etikotik abiatuta, adiskidetzera bidea urratzen duena, Europarentzat ere ezinbestekoak diren erronka eta eraldaketei heldu behar diegu: gutxiengoak gizarteratzea, feminista-etika eta genero-berdintasuna, belaunaldi-integrazioa, ikusezinenganako arreta, politika eta ekonomiaren suspertze moralak, giza eskubideen garapena, bizi osasuntsua, eta adiskidetzera eta desberdinen arteko elkarbizitzarako gizarte-kode berriak bultzatzea.



Azken batean, gure Kultur Hiriburutzak, tokiko bakearen aldeko konpromisoaren eskutik, nazioartean bakearen kultura bultzatuko duten ekimen irudimentsu ugariak garatzeko ardatza ere izan behar du. Balio komunetan oinarritutako kultura birsortu, desberdintasunak eta berezitasunak arindu beharrean horiek indartu eta ñabartuko dituen, eta horietatik abiatuta etengabe zehaztuko dena. BALIOETAN oinarritutako kultura behar du izan, KULTURA guztiei balioa emango diena.

Besteak beste, honako gai
hauek lan ditzakegu:

Antolatzekeko modu berriak
erakunde irekiak eta pertsonen abiatutako
eraldaketa

Desberdintasunaren emergentzia eta berdintasun-politikak

**Nortasune(t)an oinarritutako
nortasuna**

Gizarte ikusezina

**Bake-kultura indarkeria
guztien aurka**

Feminista-etika
Emakumeen boterea eta
maskulinitasun berria

**Tokiko eta hurbileko
justiziatik justizia
unibertsalera**

**Biktimen indar moralak
indarkeriaren terrorearen aurka**

Besteak beste, honako gai hauek lan ditzakegu:

Amateur kultura
gizarte-sormenaren
eragile gisa

Kultura zientifikoa eta
teknologia demokratikoak

Eliteko kulturatik
gizarte-kulturara

Sormena eta artea gizarte-
berrikuntza konprometituaren
eragile gisa

Festaren
ikuspegi berria

Ingurunea garatzeko
inplikaturako gazteak

Narratiba disidenteak eta
subjektibitate berriak

Esperientzia

Zaharren indarra


Kontraesanak, gatazkak eta
desadostasunak, eraldatzeko aukera gisa

Erronka zahar eta
berrietarako balioak


Gauza txikien etika




Elkar>hizegin
Hitzen hiria



**Hitzen hiria, gure kultura- eta hizkuntza-
aniztasuna hizkuntza eta nortasun
konplexuen esparru batean garatzen
delako, Europaren eraikuntzari begira oso
interesgarria dena, aniztasunaren
kudeaketatik abiatuta.**



Euskadin hizkuntza anitzeko errealitate batean bizi gara. Bi hizkuntza ofizialei, hots, gaztelania/espainolari eta euskarari, beste hainbat hizkuntza eransten zaizkio: frantsesa, mugaz haraindiko nukleo anitzeko euroskualde batean bizi garelako; ingelesa, nazioarteko lingua franca den heinean; eta munduko hainbat tokitatik etorritako ahots ugariak, gure eguneroko bizitzan gero eta nabariagoa den kultur aniztasunaren adierazgarri. Horregatik, elkarrizketak sortzerakoan, hizkuntza-aniztasunetik abiatu behar dugu betiere. Elkarrizketa bultzatu behar dugu, elkar ulertzearen mesedetan.



Arreta berezia eskani behar diegu, halaber, egunero aurkitzen ditugun hizkuntza tipologia eta hizkuntza-maila guztiei. Herri-erabileratik erabilera espezializatuetera, komunikabide eta teknologiek gero eta garrantzi handiagoa dutela, erabilera unibertsaleko hizkuntzak badaudela aintzat hartuta eta abar.

Besteak beste, honako gai
hauek lan ditzakegu:

**Elkarrizketa,
harremanetarako
bitarteko gisa**

Adopzio-hizkuntzak

**Aniztasunaren
kontzientzia
Kultur polifonia**

Hirigintza, gizartea eta hizkuntza

**Euskara,
Europako hizkuntza
Hizkuntza gutxituak**

**Hizkuntza-aniztasuna,
Europari kohesioa emateko
eragile gisa**

**Itzulpena
antagonismoaren
aurka**

Besteak beste, honako gai
hauek lan ditzakegu:

Kode irekiko kultura
Copyright kulturatik copyleft
jakintzara

Hitzen “industria”

I+G+B
hizkuntzaren
erabilera

**Hizkuntzak/hizkerak
gainjartzea**

Kulturarako sarbide
unibertsala

Konektatuen eta ez-konektatuen
arteko hesia(k) gainditzea


Alfabetatzea,
komunikabideetan
eta multimedian

Ahoz ahokoaren
tradiziotik Interneten
gizarte-sareetara


Ahozko tradizioa
kontatzea,
esperientzia bizitzea




Elkar*eragiten
Eurohiri atlantikoa



**Eraiki nahi dugun hiriak eta bizi nahi
dugun munduak izan nahi
dugunarekin eta partekatzen ditugun
balioekin dute zerikusia.**



Hala, Donostia 2016 hautagaitzaren ardatz nagusietako bat lurraldea da, bizitza igarotzen den tokitzat hartua. Gurea lurralde ATLANTIKOA da zalantzarik gabe, kode irekiko lurraldea, udalez eta mugaz haraindikoa, muga mugikorrak dituen ekosistema komuna, Europa berria sortzeko lagungarri behar duena. Lurralde horretan mugak ez dira oztopo izango aukera baizik, kultur aberastasun eta gizarte-aniztasun handiagoa ekartzeko, eta kartografia sozial, politiko eta ekonomiko berriak sortzeko.



Lurralde soziopolitikoaren inguruko ideia horrek ezin ditu inondik inora alde batera utzi iraunkortasunarekin edo iraunkortasunik ezarekin zerikusia duten alderdiak, ekologiaren eta ingurumenaren erronka gero eta urgenteagoei lotuta daudenak. Hiriburutza-proiektuak aurre egin beharko die horiei guztiei, apustu ausart eta irudimentsuak eginez.

Lurralde-mailako iraunkortasun/iraunkortasunik eza horrek bertan bizi direnei eragiten die, eta, ildo horretatik, bizi-kalitatearen/bizi osasungarriaren ideiak garrantzia hartzen du, gure burua eta besteak zaintzeko dugun moduari lotuta.

Besteak beste, honako gai hauek lan ditzakegu:

Espazio publikoa herritarren bizitzarako berreskuratzea

Hiri trinkotik postmetropolira

Kartografia eta (gure burua) irudikatze modu berriak

Mugaz haraindiko hiriak nazioz haraindiko Europaren esparruan

Hiria erdigune gisa

Konektatutako lurraldea Barneko eta kanpoko fluxuak

**Donostia/Baiona
Euskadi/Akitania
Barruti soziokulturala**

Auzo-kultura

Lurraldea gobernatzeko eta lurraldean agintzeko modu berriak

Kode irekiko eta eraikuntza partekatuko lurraldea(k)

Izaera atlantikoa

Besteak beste, honako gai hauek lan ditzakegu:

Bizi-kalitatea **Bizi osasungarria**

Ekologia- eta ingurumen- erronka berriak

- > Oinatz ekologikoa
- Itsasoko eta kostaldeko aniztasunaren babesa eta proiektzioa
- > Turismoa eta lurraldean eragiten dituen ondorioak birpentsatzea
- > ...

Garapen(ez)iraunkorra

- > Txikiagotzea
- > Tokiko merkatuak
- > Kontsumo arduratsua
- > Ekonomia solidarioa
- > ...

Gure burua zaintzea

- > Gastronomía ekologikoa
- > Amateur kirola: erronka/osasuna
- > SlowLife
- > ...

Oreka-jokoa

- > hiria-landa
- > itsasoa-mendia
- > industria-zerbitzuak
- > ...

Jardun-mailak



Teorikoa

Pentsamendua, hausnarketa, eztabaida, ikerketa, diskurtsoa, ideologia, kritika, jakintza, foroa, argitaratzea eta abar.

Sinbolikoa

Subjektibitatea, poetika, irudikapena, estetika, irudimenezkoa, metaforikoa, azalpenezkoa, sormena, abstraktoa eta abar.

Enpiriko-praktikoa

Aplikazioa, berrikuntza, zehatza, laborategia, tailerra, probak, prototipoak, kasu praktikoak, metodologia, sistematizazioa eta abar.

Parte-hartzea


Egilekidetza, lankidetzatza, laguntza, inplikazioa, proaktiboa, ekintza, komunitatea, sareak, mobilizazioa, coworkinga, ahalduntzea eta abar.

Komunikazioa

Informazioa, sentsibilizazioa, dokumentazioa, argitaratzea, hedapena, gizarteratzea, elkarrizketa eta abar.



**Kontuan hartu
beharreko
zeharkako
alderdiak**

- 
- **Herritarren energia**
 - **Hezkuntza hedatua**
 - **Sormen eraldatzailea**
 - **Feminista-etika**
 - **Prozesua da helburua**
 - **Partekatu VS Lehiatu**
 - **Soiltasun arduratsua**

Herritarren energia

A photograph of a green vine with a purple flower against a light blue sky. The vine is the central focus, curving from the bottom left towards the top right. The background is a clear, light blue sky. The text 'Herritarren energia' is overlaid on the left side of the image in a bold, black, sans-serif font.

Donostiako Hiriburutza-proiektuaren ardatza **PERTSONAK** dira, eta, zehazkiago, pertsonak azterketak eta hausnarketak egiteko, gauzak zalantzan jartzeko, proposamenak egiteko, sortzeko eta ekiteko duten ahalmena. Azken batean, pertsonak, bakarka zein taldeka, beren ingurunean esku hartzeko eta ingurune hori **ERALDATZEKO** duten ahalmena.

Hala, hautagaitza aurrera eramateko, herritarren eta inguruneko hainbat eremutako (ongizatea, hirigintza, ingurumena, hezkuntza, teknologia eta abar) agente sozial, kultural eta ekonomikoen parte-hartzea ezinbestekoa izango da, eta parte-hartze horrek proaktiboa eta bateratua izan beharko du, baterako erantzukizunean oinarritua.

Proiektua zehaztea, egindako urratsak egiaztatzea eta jarduerak zehaztu eta garatzea ahalbidetuko du parte-hartze horrek.

Belaunaldi Kultura Diziplina Bit-Artekoa

...

Proposatzen dugun Hiriburutzak etorkizuneko belaunaldien parte-hartzea sustatuko du bereziki, gaur egungo haur eta gazteen parte-hartzea alegia, etorkizuneko subjektu aktiboak eta arduratsuak izango diren heinean. Eta, Europaren ildo beretik, adinekoei ere eman nahi die garrantzi berezia, **ESPERIENTZIA** eta jakintza handiaren jabe izaki eta bizi-itxaropena handitu ahala, adineko jendeak oraindik zer proposatu eta zer egin asko daukala aintzat hartuta.

Gainera, kultura, erlijio, genero, hizkuntza eta interes pertsonalei dagokienez herritarren artean gero eta nabariagoa den aniztasuna integratzeko ahalegina egin nahi du, aniztasun hori mehatxutat ez, baizik eta aukera-iturburutzat hartuz.


Ingurune fisikoak eta birtualak

Kultur Hiriburutzako gure proiektuak gizarteratze modu berriak sustatu nahi ditu ingurune fisiko eta digitaletan, agente berriak inplikatu eta gizarte-sare berrituetan txertatuko dituztenak, HURBILEKO ETA AUZOKO KULTURA kontuan hartuz, herritarren sarea indartzen eta sendotzen laguntzeko.

Arlo digitalari dagokionez, IKTBetan (Internet, telefonia mugikorra eta multimedia komunikazioko bestelako baliabideak) egindako aurrerapenak lagungarri dira herritarren parte-hartze aktibo eta konprometituari begira, baina ahalegin bereziak egin behar ditugu konektatuen eta ez-konektatuen artean sor daitekeen hesi digitala gainditzeko, komunikabideetan eta multimedian alfabetatzeko prozesu kualitatiboak abian jarritz.


Hezkuntza hedatua





Donostia 2016 hautagaitzak kultura pedagogikoa jarri nahi du bere ekimenaren erdigunean. Hala, hezkuntza hedatzea du ideia nagusitzat, honako hauetara bideratu beharrekoa: mota guztietako prozesu formal eta ez-formaletara, hezkuntza-paradigma berrietara, hezkuntza-arloko aisialdi eta astialdira, esperientzian oinarritutako jardunbideetara, desikasteko prozesuetara, autoikaskuntzara, ekiten ikasteko prozesuetara, autonomia kognitiboa garatzeko alfabetatze teknologiko eta mediatikora eta abar.

Azken batean, etengabeko hezkuntza-prozesua da hedatu nahi duguna, bizimodutzat eta herritar gisa ahalduntzeko prozesu pertsonaltzat hartua.



Hezkuntzak, zentzu zabalean eta maila desberdinetan, Hautagaitza osoa zeharkatu behar du, hau da, Hautagaitzaren proiektu, programa eta jarduera guztien zeharkako lerroa izan behar du.

Hori ezin dugu alde batera utzi, inondik inora, eta, irakaspén soiletara makurtu beharrean, interpretazio-bideak ireki behar ditugu, elkarreragina eta baterako hezkuntza sustatu behar dugu, jakintza zabaldu eta egiaztatzeko aukerak sortu behar ditugu, erantzun itxirik gabeko erronkak proposatu, esperientzia-trukea erraztu, alfabetatze-prozesuak ezarri, dibulgazio-jarduerak antolatu, bitartekotza-estrategia desberdinak artikulatu, prestakuntza espezializatua eskaini eta abar.


A green coiled telephone cord is shown against a light blue background. The cord is coiled in a large loop on the left side of the frame and extends towards the right. In the background, there are several thin, horizontal lines, possibly representing other cables or a window frame. The overall image is slightly blurred, giving it a soft, artistic feel.

Sormen eraidatzailea

ENERGIA ETA AHALMEN SORTZAILEAK ahalbidetzea da Hiriburutzaren helburu nagusietako bat, sormena bizitzaren eremu guztietara hedatzeko aukera emango duena.

Horregatik, irudimenaren, sormenaren eta berrikuntzaren alderdirik espekulatiboenak edo aplikatuenak hartu behar dira kontuan, egiten diren proposamen guztietan.

Hortaz, sormena izango da Donostia 2016 hautagaitzaren ezaugarri nagusietako bat, baina, joera orokor hori ez ezik, dagoeneko ireki diren bi ildo ere ezarri behar dira: batetik, sormen aplikatua, askotariko erakundeei dagozkien proiektuei lotutakoa, eta, bestetik, jardunbide kokatuekin eta espazio publikoarekin zerikusi handiagoa duena.



Herritarren energiako laborategiak: Tokiko erakundeei (elkarteak, enpresak, ikerketa-zentroak, erakunde publikoak eta abar) deialdia egin ondoren, proiektu zehatzak garatuko ditugu Hiriburutzaren gaietako bati loturik, artistekin edo bestelako talde sortzaileekin elkarlanean, coworkinga, metodologia berriak, prototipoak eta jakintzaren eta esperientzien transferentzia sustatuz. (GURE BURUA) ERALDATZEKO, inertzia apurtu beharra dagoelako.

Hiriko esku-hartzeak eta jardunbide kokatuak: Hainbat proiektu erakutsiko ditugu Hiriburutzaren eraginpeko lurralde osoan. Aldi baterako proiektu iragankorrak izango dira, eta arte-jardunbide ez-monumentalak sustatzen ahaleginduko dira, Donostia 2016 hautagaitzaren balio eta gaiekin bat etorriz eta balio eta gai horiek aurkeztu edo irudikatzeko moduaren arabera.



Feminista -etika

Maskulinitasunak gizarte-dinamikak menderatu ohi ditu nonahi, eta horren ondorioz antolatu den gizarte-egiturak emakumeak baztertu ditu agintaritzako eta botereko guneetatik. Ereduegemoniko hori goitik behera aldatzeko garaia heldu da, emakume-etikari berriz ere balioa emanez, Euskadin gure jatorriarekin, matriarkatuarekin, uztartzen dena. **GIZARTE FEMINIZAZIOAREN** aldeko apustua egin behar dugu, berdintasun-politikak gaindituz gizarteak emakumeen egiteko, harremanetan jartzeko edo ingurunean jarduteko moduak eta emakumeen balioak -sentsibiltatea, afektibitatea, kalteberatasuna eta abar- beregana ditzan.

Bestetik, maskulinitasunaren pedagogia berria ezarri behar da aldi berean, gizon tradizionalaren estereotipoa -indartsua, boteretsua eta lehiakorra- apurtuko duena.

Prozesua da helburua



Egitura eraldatzeko prozesuak

Ahalegin guztiak egin behar ditugu Hiriburutza lortzeko aukerak handitzearren, horixe baita gure betebeharra, baina nolana ere gure lana epe laburreko eta epe ertain-luzeko prozesuan nabarmendu behar da, Hiriburutza lortu edo ez. Eraldatzeko eta estrategia aldatzeko asmoarekin lan egin behar dugu, harremanetarako eta etengabeko sormenerako garai berri bat hasteko lanean murgilduz.

Fasez faseko garapena


Logikoa denez, proposatutako programazioa aldatzeko aukera izango dugu, hautagaitzak lortutako emaitzaren eta eskuratutako baliabideen arabera, baina argi dago programazio horren arrakasta neurtuko dela proiektuak gizarte- eta erakunde-sarean benetan zenbateraino sartzen diren ikusita. Horren ildotik, garrantzitsua da proiektuak berehala beren inkubagailu naturaletara biltzea eta bertan, fasez fase, garatzen hastea. Eta guztiok ere inplikatu behar dugu ahalegin horretan, hau da, erakundeek, arduradun politikoek, Hiriburutzaren Bulegoko taldeak, administrazioaren hainbat arlotako teknikariek, gizarte-agenteez eta Hiriburutzaren aldeko konpromisoa hartu dugun herritar guztiok.


Ekintzak batzea

Epe laburra- ertain-luzea

Koiunturazko proiektuak sustatu beharrean, egiturazko proiektuak sustatu nahi ditugu, ekintzak batzeko prozesu luzeak aurrera eramanez, hartara proiektu horiek, ahal den neurrian, gure hautagaitzaren eraginpeko lurralde geografikoan jarduten duten gizarte-sareetan eta erakunde publiko zein pribatuetan txerta daitezten.

Soiltasun arduratsua






Ustez luzea eta egiturazkoa izango den nazioarteko krisialdiaren esparruan, Donostia 2016 hautagaitzak soiltasunean eta gizarte-erantzukizunean oinarritutako Hiriburutza proposatu nahi du.

Hortaz, inbertsioak erabateko erantzukizun publikotik egingo dira, gastua mugatua dela eta gastu horrek gizarte-inbertsioa behar duela kontuan hartuta. Gainera, baterako finantziazioko alternatibak bilatu behar dira, proiektuak baldintzatu beharrean proiektu horiek indartuko dituztenak, onura orokorrari lehentasuna emanez betiere partikularren edo taldeen interesen gaineratik, eta inbertitutakoa gizarteari itzultzeko eskatuz, gizarteak hobetzeko, aldatzeko eta etorkizunerako alternatiba berriak sortzeko aukera izan dezan.


The image shows a green, segmented, worm-like structure, possibly a biological specimen, against a light blue background. The structure is curved and has a series of small, dark spots along its length. It appears to be a close-up of a biological specimen, possibly a larva or a small insect. The text "Partekatu VS Lehiatu" is overlaid on the image in a large, bold, black font.

Partekatu VS Lehiatu



Egun nagusi den dinamikaren eraginez (metatzea/inbertsioa/kontsumoa/etekina/metatzea), hirien artean lehia handia sortzen ari da besteak beste, hazkunde ekonomikoa eta negozio-aukera berrien garapena hirigintza-politikaren lehentasunak diren neurrian. Kudeaketan eta erregulazioan oinarritutako ikuspegiaren ordean, enpresa-eredu proaktiboa nagusitu da, lehiakortasunaren logikaren mendekoa.

Azelerazio- eta lehiakortasun-dinamika horien aurka, baliabide publikoen bitartez sustatutako ekimen orok, lehenik eta behin, herritarren hobekuntza integralari eman behar dio lehentasuna.




Hala, partekatzea izango da Donostiako hautagaitzaren oinarria. Lurralde-mailako bestelako erakundeekin, ingurune pribatuko agenteekin, sareko beste hainbat lurralderekin, Europako Kultur Hiriburu izan diren beste hiriekin eta 2016an Hiriburutza lortzeko hautagai diren Espainiako gainerako hiriekin partekatu beharrean gaude, fluxuak aprobetxatzeko, sinergiak sortzeko, proiektuak partekatzeko eta abar, irabazteko lehiaren logikatik aldenduz eta lankidetzazko espiritua sortuz, Donostiak bezalaxe etorkizuna eraldatzeko ardatz gisa kultura hautatu duten hirien artean.



ERREPIKA DEZAGUN...

**Zer nahi dugu
Zugandik?**



Zure laguntza behar dugu, Europako Kultur Hiriburua izateko Donostia 2016 hautagaitzarako **KULTUR programazioko proposamen zehatz bat artikulatzeko.**

Txosten honetan bildutako materiala oinarritzat hartuta egin dezazula nahi dugu, zure esperientzia-jakintza pertsonal-profesionaletik eta laborategian truka daitezkeen iritziak kontuan hartuz.

Kontua ez da kontzeptuzko eztabaida filosofiko batean sartzea, baizik eta, gehienez ere, eztabaida hori **PROPOSAMEN PROGRAMATIKO ZEHATZEN** bitartez egitea, ikuspegi panoramiko (hautagaitza-proiektua bere osotasunean hartuta), zeharkako (ardatz, maila, gai eta abarren artean egon daitezkeen loturak bilatuz) eta ireki (proposamenak sistema itxiak eta erabatekoak ez direla aintzat hartuta) batetik abiatuta.

Garrantzizkoa da, halaber, ideia, hitz eta irudi sinboliko iradokitzaileak sortzea, Donostia 2016 hautagaitzari laguntza eta koherentzia emateko baliagarri izan daitezkeenak.

Europako Kultur Hiriburua izateko gure proiektua garatzeko kontzeptuzko ereduak

- Arazoak-erronkak zehaztea (lan-ardatzen arabera) / Galderak egitea / HELBURUAK zehaztea / Adierazleak ezartzea (kualitatiboak, kuantitatiboak eta adierazle berriak).
- Soluzio sortzaileak bilatzea eta galdera berriak egitea / proiektuak eginez (garatu beharreko mailen arabera).
- Ardatzak eta mailak zeharkakoak dira, eta elkarri lotuta daude.
- Tokian pentsatua eta tokian aplikatua/ Globalean, European bereziki, egokitzeko moduko eredu gisa transferitua.

Zein da programazioa antolatzeko eskema?

Hainbat lan-ardatz, jardun-maila eta zeharkako alderdiren bitartez artikulatu da programa (guztiak ere txosten honetan aurkeztu dira).

Eskema horretatik abiatuta, zenbait **faro-proiektu** (gutxienez sei eta gehienez hamabi) sortu behar dira; faro-proiektu bakoitzak zenbait **programa** bilduko ditu, eta programa bakoitzak, halaber, zenbait **jarduera**. Ez ditugu jarduerak sakonetik garatu behar, baina “irudi” moduko bat sortu behar dugu, zertaz ari garen imajinatzeko lagungarri.



Faro-proiektuak

- - -

Programak

- - -

Jarduerak

Aparretan Gora

Horixe izan daiteke bila gabiltzan programazio mota definitzeko esamolde egokia. Ingurunean sartu ondoren, goraka egin behar du programazio horrek (gaurko egunetik 2015era bitarte), 2016an goreneko eferbeszentzia lortzeraino, nabarmenago eta ikusgarriago. Ondoren, 2016tik aurrera, disolbatu egingo da ingurunean, efektu sendagarri eta ERALDATZAILEA eraginez.

Gainera, honako hauek eskatu nahi dizkizugu...

Kritika konstruktibotik eta proposamenei buruzko baloraziotik abiatuta:

1. Eman zure iritzia Europako Kultur Hiriburua izateko Donostia 2016 hautagaitza-proposamenaren kontzeptu orokorraren edo alderdi partikularren inguruan.
2. Nola ikusten duzu Donostia? Zure ustez, nola bilakatu behar du hiriak etorkizunari begira?

Fase metodologikoak

Laborategiko lan-prozesua hiru fasetan banatzen da:

1. **FASEA:** Lan-materiala (txosten hau erantsia) jaso eta aztertzen da.
2. **FASEA:** Lan-bilerak, taldeka edo banaka (antolatzaileek erabakiko dute parte-hartzaile bakoitzarekin egin beharreko bilera mota eta saio kopurua).
3. **FASEA:** feed-backa itzultzen da, proposamena laburbiltzen duen idazki baten bitartez (2-4 orri)

Gure kontaktuak

Elizabeth Etxebeste

+34 660 613 059 / eli_etxebeste@sansebastian2016.eu

Manu Egaña

+34 675 860 198 / manuentropia@gmail.com

Ricardo Antón

+34 659 964 873 / ricardo@amaste.com

Santiago Eraso

+34 656 790 005 / santiago.eraso@gmail.com

+34 943 481 983 / www.sansebastian2016.eu



**Eta horrenbestez
amaitu dugu...**



Hasiko al gara?

ESKERRIK ASKO!!!

EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA 2016an
DONOSTIAKO HAUTAGAITZA
2009ko abendua

